



Hedy Lamarr
AKTOREA ETA ASMATZAILEA

Aparteko gaitasun intelektualak zituen Austriako emakume hau ingeniari bat ikasten hasi zenean, ezin zuen imajinatu 1940an "maiztasunak kommutatzeko teknika" garatu izanak, urte batzuk geroago, WiFi eta Bluetooth teknologia sortzen lagunduko zuenik.

Bere izen osoa HEDWING EVA MARÍA KIESLER zen, baina HEDY LAMARR bezala ezagutzen da.

Vienan (Austria) jaio zen 1914ko azaroaren 9an eta 2000ko urtarrilaren 19an hil zen Casselberry (Florida, EEUU).

Bere karrera zinematografikoa Txekoslovakian hasi zen. Garai hartan Austriako munizio ekoizle aberats batekin ezkontuta zegoen. Baina ihes egin zuen, hasieran Parisera eta geroago Londresera non Metro Goldwyn Mayer nagusia ezagutu zuen. Horrek zine-kontratu bat eskaini ziona Hollywood-en. Zinema-izar bihurtu zen. Bere arrakasta handiena "Dalila" izan zen (Samson eta Dalila pelikulan).

Asmakizunak asmatzea zen gehien gustatzen zitzaiona eta Bigarren Mundu Gerraren hasieran, berak eta George Anthell konpositoreak, torpedo aliatuentzako irrati bidezko gida-sistema baten patentea garatu zuten, espektro zabaldua eta frekuentzia-jauziko teknologia erabiltzen zituena, ardatzaren potentziek interferentzien mehatxua gainditzeko. Nahiz eta 1960ko hamarkadara arte teknologia hori erabili ez izan, bere lanaren hasiera txertatu egin zen Bluetooth eta Wifi teknologietan.

